

DISOLUZIOAK: ARIKETAK

1. ariketa

Sodio hidroxido disoluzio baten kontzentrazioa %25 da, masa-proporzioan emanik. Disoluzioaren dentsitatea 1,3 g/mL-koa da. Kalkulatu:

- disoluzio horren kontzentrazioa mol/L eta g/L-tan
- disoluzio horretatik zein bolumen hartu behar den 50 g solutu bertan egoteko
- disoluzio horren 100 mL hartuz, bertan zenbat molekula sodio hidroxido egongo diren kalkulatu

Masa atomikoak ... Na=23; O=16; H=1
 $N_A=6,02 \cdot 10^{23}$

2. ariketa

Sodio klorurotan 300 g/L-ko kontzentrazioa duen disoluzio batetik abiatuz, 250 mL disoluzio 2 M prestatu behar dugu. Zenbat mililitro hartu behar dugu hasierako disoluziotik bigarren disoluzioa prestatzeko?

Masa atomikoak: Cl=35,5; Na=23

3. ariketa

Azido sulfurikoaren disoluzio batek %64 masa-portzentaia du eta dentsitatea 1,54 g/mL-koa da. Kalkulatu:

- disoluzioaren molaritatea
- disoluzioaren zein bolumen hartu behar den 50 g solutu nahi badira
- disoluzioaren 100 mL-tan zenbat molekula solutu dauden

Masa atomikoak: S=32; O=16; H=1
 $N_A=6,02 \cdot 10^{23}$

4. ariketa

10 M den azido klorhidrikoa daukagu. Kalkulatu disoluzio honetatik zenbateko bolumena beharko den (mL-tan eman), 600 mL 0,5 M den disoluzioa lortzeko, hasierako disoluzioa diluitu ondoren (hau da, ura gehituz)

Masa atomikoak ... Cl=35,5; H=1

5. ariketa

Sodio klorurotan 2M den disoluzio baten dentsitatea 1,10 g/mL-koa da. Kalkula ezazu disoluzio horren kontzentrazioa g/L-tan eta masa-portzentaian

Masa atomikoak Na=23, Cl=35,5

6. ariketa

Laborategian daukagun azido nitrikoaren botila baten etiketak zera dio: "HNO₃ %40 d=1,25 g/mL". Kalkula ezazu botila horretatik hartu behar dugun bolumena, azido nitrikoaren 500 mL disoluzio 0,3 M prestatzeko.

Masa atomikoak: N=14, H=1, O=16